

Gora egin du enpresa berritzaileen ehunekoak EAEn, eta % 16,9 izan ziren 2015ean

Berrikuntza teknologikoak egiten dituzten eta finantziario publikoa jasotzen duten enpresen % 67k Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 16,9k berrikuntzak –teknologikoak edo ez– egin zituzten 2015ean, 2014an baino ehuneko 4 hamarren gehiagok, Eustatek landutako datuen arabera. Berrikuntzak egin zituzten 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta, enpresa berritzaileak % 34,6 izan ziren, 2014an baino ehuneko 0,1 gehiago.

1. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2013-2015

Euskal AE	Berrikuntza teknologikoa		Enpresa berritzaile teknologikoak	Berrikuntza ez-teknologika		Enpresa berritzaile teknologikoak	Enpresa berritzaileak (1)	Enpresa berritzaile EIN (1) (2)
	Produktuan	Prozesuan		antolamenduan	merkaturatzean			
Guztira	7,8	9,2	11,9	5,5	6,7	9,5	16,9	17,3
10 enplegatu eta gehiago	17,6	22,3	28,2	16,5	9,1	19,9	34,6	37,2

(1) Berrikuntza teknologikoa eta/edo ez-teknologika

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 11,9k, hau da, 19.338 enpresak, **berrikuntza teknologikoak** egin zituzten 2013-2015 aldian, eta aurreko aldiarekin alderatuta, beraz, ehuneko 0,3 puntuko beharaldia izan zen. **Berrikuntza teknologikotzat** hartzen da enpresek **produktu** berri edo nabarmen hobetu **bat** (ondasuna edo zerbitzua) **merkaturatzea** –2015ean enpresen % 7,8– edo **establezimenduan bertan prozesu** berri edo nabarmen hobetu bat ezartzea –% 9,2–.


Hala ere, 10 langile edo gehiago dituzten enpresak bakarrik kontuan hartuz gero, ehuneko hori 28,2koa da, aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gehiago. Tamaina horretako enpresei dagokienez, % 17,6k produktuan egin zuten berrikuntza, eta % 22,3k prozesuetan.

Euskal enpresek BPGren % 3,5 gastatu zuten berrikuntza teknologikorako jardueretan

Euskal enpresek 2.443,2 milioi euro gastatu zituzten 2015ean berrikuntza teknologikorako jardueretan, aurreko urtean baino % 1,2 gutxiago. Gastu hori BPGren % 3,5 izan zen.

Berrikuntza teknologikorako beharrezkoak diren jarduera nagusien artean nabarmentzen dira barneko I+Gn egindako gastua –gastu osoaren % 52,1–, makinak eta ekipamendua erostea –% 19,7–, kanpoko I+G erostea –% 16,9– eta gainerako jarduerak – % 11,3–.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2015 urtea



Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Berrikuntza teknologikoak egiten dituzten enpresen % 26,6k finantzazio publikoa jasotzen dute

Laguntzen jatorriari erreparatuz gero, Eusko Jaurlaritzak emandakoak nabarmentzen dira, eta enpresa berritzaile guztiek jasotako laguntzen % 17,9 dira. Horrek esan nahi du berrikuntzak egiten dituzten eta laguntzak jasotzen dituzten enpresen % 67,3k Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituztela laguntzak. 10 langile edo gehiago dituztenen kasuan, % 51,3k jasotzen dituzte laguntzak, eta kasu honetan ere, Eusko Jaurlaritza da finantzaketa emaile nagusia: berrikuntza-gastuak dituzten tamaina horretako enpresen % 35,9 finantzatzen du. Beste era batera esanda, 10 langile edo gehiago dituzten eta laguntzak jasotzen dituzten enpresen % 70ek Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituzte laguntzak.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa teknologikoki berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2013-2015

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasotzen dute haueetatik	26,6	51,3
Tokiko administrazioak	3,9	7
Foru aldundiak	7,9	18,2
Eusko Jaurlaritza	17,9	35,9
Administrazio zentrala	7,4	16,2
Europar Batasuna	3,1	12,8

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Berrikuntza teknologikoak egiten dituzten ia enpresa guztiek, % 91,7k, uste dute berrikuntzak eragin positiboak dituela

Enpresen % 84,4ren ustez berrikuntzak eragin positiboa du bere produktuetan, bai ondasunetan bai zerbitzuetan; % 71,4ren ustez eragin positiboa du barne-prozesuetan; % 54,3ren ustez eragina du enpleguan eta % 46,0ren ustez badira beste eragin positibo batzuk ere, hala nola, ingurumen-inpaktu txikiagoa edota langileen osasunaren hobekuntza.

10 langile edo gehiago dituzten enpresa berritzaileen kasuan, % 93,3k uste dute berrikuntzak ondorio positiboak dituela, eta tamaina honetako enpresetan gainerako ehunekoak dira % 83,9, % 69,3, % 60,7 eta % 46,0, hurrenez hurren.

Enpresen erdiak baino gehiagok uste du hainbat faktorek zaildu egiten dutela berrikuntza teknologikoa

Zehazki, % 57,0k uste du faktore jakin batzuek zaildu egiten dutela berrikuntza teknologikoa. Faktore horien artean ekonomikoak dira nagusi. Enpresek azpimarratzen dituzte gehiegizko arrisku ekonomikoak (% 41,1), berrikuntza egitearen kostu handia (% 44,8) eta finantziazio-iturririk ez izatea (% 37,6). 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, % 66,1ek uste dute hainbat faktorek zaildu egiten dituztela berrikuntzak, eta traba berberak azpimarratzen dituzte.

Berrikuntza ez-teknologikoa

Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez, antolakuntzan eta merkaturatzean egindako berrikuntzak sartzen dira, eta **enpresen % 9,5ek egiten dituzte. Antolaketan berrikuntzak egitea** enpresaren barne-funtzionamenduan antolaketa-metodo berriak ezartzea da, eta euskal enpresen % 5,5ek egiten dituzte. **Merkaturatzean berrikuntzak egitea** aurrekoetatik nabarmen desberdinak diren eta sekula baliatu ez diren estrategia edo kontzeptu komertzialak gauzatzea da, eta euskal enpresen % 6,7k egiten dituzte. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, berrikuntza ez-teknologikoa % 19,9 da, eta antolaketan berrikuntzak eginez (% 16,5) eta merkaturatzean berrikuntzak eginez (% 9,1) lortzen da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko berrikuntzaren inkesta. Datu-bankua